

**FRAI BARTOLOME SANTA TERESA
(Grafologiaren ikuspuntutik)**

Harizpi eran luzatzen den idazkera honek minutuko berehun letra baino gehiagoko abiadura du. Sekulako jabetze (asimilazio) gaitasunaren, ideiak hitzetik hortzera sortu eta adierazteko trebetasunaren eta deskribapen boterearen islada da. Idazkera elkartua da Frai Bartolome-rena, hunkiberatasunak deslotua. Burutapenen oparotasuna eta pentsamendu intuiorra erakusten du, honek goraldi edo exaltaziora eta gehiegizko ilusiora eroan ahal duela. Joera inkontzienteen inbasio antzeko bat nabari da batez ere 1815. urteko idatzietatik aurrera. Idazkera lardaskatsua izateak, hots, letren beheko aldeak aurreko lerroko goiko aldeekin nahasteak goraldi hauen testigu dira.

Irudimenak eta bihotzak arrazoiak baino indar gehiago dauka berarengan eta epaiak sentimenduaren hatzamarretan erortzen dira. Letren goiko aldean, gangorren luzera batzuetan handia da eta besteetan oso laburra, sentimenduaren domeinua indartzen duela.

Ohizko bere idatziak desordenatuak dira, desordena hau aktiboa izanik. Eskuaren eta nortasunaren mugimendu biziak eraginda, inpulsiotasuna eta gelditu gabeko ekintza erakusten du. Pertsona aktiboen sinplifikazio nahia ere erakusten du.

Beguixatu bejue, es oneri baliyo ehiguijazi, es pada gūg-
 tai esquintzen davenasen vorondate pinaxi, cenegar cu-
 quilo daven. necaxibagaca poza euzo esi Capillau
 humilde, ta, bnestu
 Pasi Bartolome Santa Fezasac

Denbora ezaren, pasioaren eta barne motibazio nabarmenaren emaitza dira nekez ulertzen diren idatzi hauek

Ez du orrialdeetan beheko bazterkirik uzten: Aurkezpena baino gehiago ardura dio Frai Bartolomeri esaten duena, funtsa, ekintza. Eskuardean duena amaitu arte ekingo dio eta kosta egingo zaio darabilen lana bertan behera uztea. Dena den azkenera arte joate hau inspirazio uneetan izango da (askotan) animoaren irregulartasunek eraginbera bihurtzen baitzuten.

Letra zati batzuk ("g" letraren azkenak adibidez) nabarmenak dira, proportzio aldetik gehiegikeriak erakusten dituzte, dinamismo psikofisiko handiaren islada. Letren beheko aldean luzapena geldirik egon ezin duen pertsonaren zeinua da. Nahi duenean nahiko ongi proportzionatzen ditu mugimenduak: Egoera zehatzetarako bere burua kontrolatzen dakienaren seinale.

Ekzerreko bazterkia irregularra da, sartu-irtenean dabil, inguruko pertsonen sentimenduekiko sentikortasuna eta emotibitate indartsua agertuz. Ideia, gustu eta erabakiak aldatzeko joeraren berri ere ematen digu ezaugarri honek. Orrialdeetako eskuineko bazterkiari begiratu bat emanez, hutsunerik ez da-goela konturatzeko gara, sarri askotan lerroek azeri-buztan forma hartzen dutela: Ausardia, estrabertsioa, mugak haustea... Letrak, altuagoak baino askoz ere zabalagoak izateak ere bizi-jarrera estrabertituaren eta pertsona hizlaria izatearen informazioa berrindartzen du. Hala ere, mugimendu dextrogiro eta sinistrogio jarraituak egiten ditu Frai Bartolome-k, pertsona estrabertitu eta lagunarteko gehienetan gertatzen diren erreserba eta diskrezio behar normalaren islada.

Orrialdea bere osotasunean hartuta, testua, espazio idatzia, "beltza" nagusitu egiten da zuriuneekiko. Pentsamenduaren arreta eta kontzentrazioa erakusten du, hain murgilduta egoten da, ze ikuspegi orokorra galtzeko arriskua izaten duela. Denbora eta baliabideen ustiaketa handiaren arrastoa ere bada.

Hitzen arteko espazioa desberdina da, batzuetan espazio estandarra izanda ere gehientsuenetan hitzak elkartuegiak daude, tarte urria dute euren artean. Emotibitatea eta nolabaiteko anibalentzia egoera nabari da honelako kasuetan: Besteekin egoteko gogoia apur bat irregularra izango da eta hausnarketa irreflexioaren izenean sakrifikatuko da.

Letren arteko espazioen hedapenak, pentsamendu zabaleko izaki baten aurrean gaudela diosku. Sakontasun afektibo eta aktiboarekin eta eskuzabaltasun ikaragarriarekin bestea maitasunez konprenitzeko gauza da. Gainera, gogoz eta arrakastatsu dihardu egia eta buruhauste konplexuak bilatzen. Askatasun sentimentu batez inguratuz, gauzen zentzu orokorra miakatzeari gustatzen zaio.

"i" letren puntuak eskuineko alderantz kokatuta daude, berrikuntzez hornituta, aurrera, etorkizunera begiratzen dabilenaren zeinua.

34

ala otra de un m. de Fiel y q. p. de las
apunta con el de lo ocurrido en cada uno
bento en q. de la fianc. en la m. de
de Mangulina y o bien sea doce o quince
ocho cientos y quince.

In Bartolomeo de Escalzo

Certifico yo el impa. escrito, q. e. por haver
vivido, en este Com. de Cuamilitar de la
de la villa de Mangulina, y a media legua de
distancia en q. de una secularizacion en
los trece años pasado, en calidad de he-
dicados de casa, y murio parca de los
hechos referidos, ^{en el fin, y en las} referidos, y por
pudo p. mi mismo, y todo con publicos
respectos asi en la Com. Com. en la Com.
mancom. protestando, q. no me ha ni de
ni tener alguno, ni p. en a. ex. p. en
de figurar la verdad de los hechos, sino
referirlos sencillamente en aquel estilo, q.
por q. de ven. tener en la y. Com. y p. q.
toga la fe q. se solicita fiamos en esta
decima setima o p. hoy de doce de ul.
bienio de mil ochocientos y quince en
este m. Com. de Cuamilitar de Escalzo, de
la villa de Mangulina.

In Bartolomeo de Escalzo



Idazkera bizia eta orrialdearen hasieratik azkenera era desberdinean egina da: Pertsona den bezela gizarteratzen da, naturaltasun eta benekotasunez.

Mugimendu arin, erdi-angelutsu eta graziatsuak egiten ditu, indar iradokigarria bete-beteen erakusten duela. Arazoak era desberdin batean konbinatzeko gaitasuna dauka; martxan doala ere hauek ebazten dihardu. Batez ere sormenarekin zerikusia duen lanetan ekoizpen handia darakus.

Idazkera almenatua edo irekia da, hau da, "a", "d", "g", "o", "q" letrak moztuta eta goitik edo eskuinetik irekita daude, altruismo eta emankortasun maila altu bat erakutsiz. Gainera idazkera eskuinera makurtua eta txirikordetan irudikatua dago, idazleak bere afektibitatea inhibizio eta mozorrorik gabe azaltzen duela.

120 eta 135 gradu bitartean makurtzen den idazkera, 140 gradura ere ailegatzen da idatzi askotan: Honela idazten duen pertsonak izpiritu aurrerakoia eta saiaria dela argi uzten du eta bihotzari, lagunarteari... garrantzia ematen diola ere bai. Karaktere grinatsuaren jabe da. Makurduraren anbibalentzia ere agertzen dira hitzen barruan: Intuizioa eta ulermena dago bere barnean eta erabakiak hartzea kosta egiten zaio, jarrerakaldaketak baititu. Lerroen norabide bihurtuak egiteak, umore aldaketa eta duda-muden datua ziurtatzen du.

Zenbait testutan bat-batean lerro edo hitzak erortzen dira, une bateko neke edo nahigabeak dira, etsipen edo adoregabezte pasakorrak. Orokorrean, urtez urteko dokumentuetako leerroek ez dute norabide finko eta zehatza; hau da, idatzi batean igo egiten dira, beste batean bihurriak dira, ondoren beheranzko harmailak agertzen dira, lerro konkaboak ere hor daude... Poztasun garaiak nahigabe uneekin tartekatzen dira. 1815. urtean komentuan gertatutako istiluen ondoren idatzitako testuetan (komentua ixtea Frantsestean, 1809-1813; Bartolome atxilotua ere izan zen), eta 1819. urteko eskuizkribuetan tristezia ageri-agerian dago.

por a hora sorpresa y con p[re]sencia
 esp[er]o en posado por ella en obediencia a lo
 n[ost]ro confirm[ado] al Sr. Duque de Osuna ^{de 1788} y
 tenido por mandado de el Sr. Duque y con el Sr.
 D. Juan de Godoy con p[re]sencia del Sr. Duque; Dando
 de mucha parte con este p[re]sencia de una p[ar]te
 de el Sr. Duque, que me anima a la paz y buena int[er]pre-
 tacion con la Sr. Villa y no honrar a el Sr. Duque, con
 tanto toda ocasion y p[re]sencia de una p[ar]te, que
 se ha de ser lo p[ro]p[ri]o; Igualmente lo p[re]sencia de la Sr.
 Duquesa con los Sr. Duques y p[re]sencia de la Sr. Duquesa por
 la Sr. Duquesa.

tenga en la bondad de el Sr. Duque de Osuna
 para p[re]sencia de la Sr. Duquesa y p[re]sencia de la Sr. Duquesa
 que a mi me ha de ser p[re]sencia de la Sr. Duquesa
 del Sr. Duque de Osuna a el Sr. Duque de Osuna
 Mayo de 1788

D. A. M. ^{con} la Sr. Duquesa
 Sr. Duque

In Barcelona el Sr. Duque de Osuna
 Sr. Duque

Letra jaurti batzuk ere baditu ("d" letra, esaterako): barne-irekitasun, hedakunde eta batez ere garraren irudi gardena da.

Testuko eta sinadurako ezaugarriak berdintsuak dira, neurrian, presioan, forman, norabidean, makurduran, "ni erakutsia" eta "barnean, sentitutako niaren" arteko harmonia erakusten duela. Testutik hurbil sinatzeko ohitura du: Barne-bizitza gizarteko esparruetara hurreratzen duenaren pertsona xumearen froga. .

Asi en dizean con del Alcaide, Reg.
 Alcaide. Lo es lo qe hay y ha vi-
 do sobre esto. Los mesores, han
 lo qe les parezca mejor. Para obri-
 gar, y quando nueva creacionales,
 puede negar de dia.
 Dic. 17. 1619.
 Fr. Bartolo
 &

Izenpea zig-zag formako mugimendu batekin bukatzen da: Adimen iratzarri eta polemikoa du, genio bizia baina arin itzaltzekoa. Pertsona eztabaidatsua izan arren, sakrifizioaren eta sumisioaren kontzeptuak oso barneratuta ditu ("t" letraren makila horizontalak oso baxuak dira).

Irune Ibarra